


GERRA AFGANISTANEN. Iparraldeko Aliantzako buruzagi Burhanuddin Rabbanik bozak egitea nahi du Gobernu eta Legebiltzarreko kideak aukeratzeko. Bonnen erabakitzen dena onartuko duela agindu izana gogora ekarri dio Nazio Batuen Erakundeak.

Rabbanik bozak eskatu eta bake indarrari mugak jartzeak etena eragin du Bonneko batzarrean

Nazio Batuen Erakundeak espero du Afganistango lau ordezkari taldeek gaur erdietsiko dutela behin-behinean bi aginte erakunde osatzeari buruzko akordioa



WEDA / EPA

Afganistango emakume talde bat, Kabul hilerri bat bisitatzen. Azken bi hamarkadetan bi milioi afganistandar baino gehiago hil dira borrokan.

Behin-behineko gobernuko kideak aukeratzeko bi hilabete-ko epean bozak egitea iradoki zuen atzo goizean Rabbanik, Kabul ezustean emandako prentsaurreko batean. Hauteskunde prozesu orok hiru irizpide hartu beharko lituzke kontuan, haren iritziz: biztanleria, tribuak eta talde politikoak. Horregatik, NBEk egiaztatutako errolda bat egitea galdegin zuen.

Kabulen onespenez gabe, Iparraldeko Aliantza ez zion agintari zerrendarik eman NBERi, eta Erroma, Zipre nahiz Peshawarko taldeak haren erantzunaren zain gelditu ziren. Hiru talde horiek osatuak eta onartuak zituzten beren zerrendak.

Beste arazo bat ere sortu zen Aliantzaren barruan, Haji Abdul Kadir ordezkari paxtuak konferentzia uztea erabaki baitzuen ostegunean, ez zitzaizkion nahikoa iruditzen paxtuak Aliantzaren ordezkari izatea. Afganistan hegoaldeko zenbait eskualdetako gobernadorea da Kadir, eta erregimen talibanak hildako Abdul Hak buruzagiaren anaia.

Karim Khalili buruzagi hazarak ere adierazi zuen bere tribuak eta uzbekoek ordezkari izan beharko luketela.

Akordiorako zailtasunak

Negoiazioak une zailen zuek nabarmendu zuen AEB Ameriketako Estatu Batuetako ordezkari James Dobbinsek. «Garrantzitsua da hau gaitzeta», adierazi zuen, «negoiazioen zati zailena izango da, eta hau ez da hasi ere egin oraindik». NBEk, ordea, garrantzia kendu zion Aliantzako kide paxtuak konferentzia utzi izanari, eta lau negoziatzaile taldeak gaur ados jarriko diren itxaropena zuen. Gainera, gogorazi zuen Rabbanik hitz eman zuela Bonnen erabakitzen dena errespetatuko zuela.

NBEko eledun Ahmad Fauziren arabera, 15-25 lagunek osatutako gobernu bat eta 200dik gorako legebiltzar antzeko bat sortuko da Afganistanen. Mohammed Zahir Sha errege ohiaren rola zein izango den ez zegoen oraindik argi, nahiz eta bazirudien lau taldeek onartzen dutela talde ezberdinen arteko pertsona bateratzailea izan behar duela. Aliantzak nahi du *Loya Jirga* tribu asanbleak ebaztea haren zeregin.

NEGOIAZIOAK

Hari batetik zintzilik

Gutxienez etnia hainbat interes daude Bonnen Afganistango etorkizun politikoa erabakitzen ari diren taldeen artean. Zailtasunak mahaia- ren gainean gelditu ziren berriro atzo. Hona egoera:

ERABAKITAKOA. Behin-behineko legebiltzar moduko bat eta gobernu bat sortzea hitzartu dute. Nazioarteko bake indar bat eratzea ere ez da guztiz baztertu, nahiz eta Burhanuddin Rabbanik trabak jarri zituen atzo eta Estatu Batuek beren ekintza militarra bukatutzat eman arte horrelakorik nahi ez dutela dirudien. Zahir Sha

errege ohiak taldeen arteko batasun funtzioa betetzea onartzen dute guztiek.

AUZI POLEMIKOENAK. Rabbaniren atzoko adierazpenen ondoren, Aliantza oraindik ez du aurkeztu agintean bere ordezkariak izango diren zerrenda. Erakundeek zein funtzio eta ahalmen izango duten ere ez dago argi, ezta errege ohiaren kargua zein izango den ere. Nazioarteko indarraren auzia ere zintzilik dago.

ARRISKUA. Akordiorik ez bada, baliteke gerra egoerara itzultzea. Tokian tokiko buruen esku izango dira lurrak, eta talibanek zenbait eremu berreskuratzeko aukera izango dute. Horregatik Bonneko ordezkariak gutxienez adostasuna iritsi behar dutela jabetzen dira.

Erredakzioa | DONOSTIA

Bonneko konferentzian etengaldira eragin zuen atzo Iparraldeko Aliantzako buruzagi eta Afganistango presidente ohi Burhanuddin Rabbanik, Kabulgo behin-behineko gobernuko kideak aukeratzeko hauteskundeak behar zirela eta nazioarteko bake indarren bat hedatzen gogoratu ere 200 kidez osatuta egon beharko lukeela adierazi ondoren. Dena den, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) espero du Bonnen Afganistango aginte berria erabakitzen ari diren lau ordezkari taldeek gaur lortuko dutela akordioa.